

Jose Villanueva Zanduetza
Erroibar, Nafarroa (1911)

Aurkibidea

Biografia

Erroibarko Erro herrian jaioa. Gurasoak ere Erroibarkoak zituen; aita Errokoa bertakoa eta ama Uretakoa (gaur egun hustuta).

Zintak

ERB-010

- **Proiektua:** Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Data:** 1987-01-01
- **Iraupena:** 13 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Artola Kortajarena, Koldo

Pasarteak

1. Artzaintzaren inguruko azalpenak

- **Erref:** ERB-010/001
- **Iraupena:** 0:06:11. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:06:11
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Artzaintzaren inguruko azalpenak. Bi ardi-klase izan omen dituzte: "menatzak" eta "marineak". Hauen inguruko azalpenak. Zenbateko artaldeak egoten ziren inguruetan.</p>

Transkripzioa

- Ze klasetakoak dira zuk erabili dituzun...
- Ardiek?
- Bai.
- Ah, pues, guk izen tugu... bi klasetakoak: menatzak? menatzak eta marinek, lachas y churras.
- Erdaraz erraten da, erdaraz, lachas y churras?
- Erdaraz, marinei? errain de, in da, churras, eta... menatzei berriz? lachas.
- Bi klasetakoak dira orduan, e? eta ze diferentzia dute beren artean?
- Pues, marine, da, buru zurie, ta kasi, kasi denak adarrik gabe, ta menatza da berriz buru beltza, ta kasi denak adarraiki(n), te gero menatzak du ellea luzia beiti, ta marinek berriz du... erro llaburre, ori...
- Ilea? artilea?
- Ella, bai.
- Erraten dute bi klaseetatik batek balio duela honarako eta Gipuzkoarako, baina bertzeak Gipuzkoarako eta klima humedorako-eta ez duela balio; hola da?
- Bai, bai; menatzak balio du? pues, euri aunitz iten badu? pues, segidoan, elletik korritzen tzaio ure, ta segidoan sekatzan da, baña... bertzeak berriz? baitu ertsi-ertsie, ta llagurre ertsi-ertsie, ure ezta sekatzan, ta orgatik eztu balio, ure umedadeikin galtzen du aunitz. Beroaindeko berriz? ure fuertëa da, marine, ta menatza berriz arront flojo an, beruendeko; iruzkia ateraz geroztik menatza segidoan badae iltzelera, ta marine ez.
- Kontxo, ze gauza, e?
- Bai, ta gero... ori, menatza? igual, egun ardi balimetuzu? igual eoen... eoin dire bide? an eoin dire lau? an eoin dire sei?... ta marine ez, marinek kasi beti? denak junto... bai.
- Eta bero handia egiten duelarik, bilatzen dute itzala, ezta?
- Bai.
- Eta paratzen dira denak hola, elkarren...
- Itzela, joaten dire oianera, sasire... sasire.
- Eta horrela egoteari, nola (erraten) zaio? Gipuzkoan erraten da 'abaroan daude', abaroan, hola, itzalean, gorderik-eta, badakizu, ezta? hemen ez?
- Nunbeitik? pues e, itzeliten daude o... itzelian daude o itzeliten daude o... olako zerbait, bai. Pues e batek bertzeai, burue ukurtute, itzela iten baitute... guk ola deitzen gintue: 'itzeliten daude'.
- Zenbat arditako saldoak (artaldeak) izaten ziren?
- Bah! pues emen saldo aundik ezta izen; guk izen tugu, iruegun buruteraño, baña booh!...
- Aski handia, ez?
- Baña... orr egun, egun-egun t'ogei... berreunetäraño? ordik beiti kasi, kasi

denek, or gure erri-, gure alderdien. Gero or, Otsagabia ta orrata? or saldo aundiagokoak gizontzen tziren naski, baña ori, nik guti zautzeunt-ta orrata; baña emen, Erro, Linzoain, Bixkarret, Mezkiriz, Espinal... ta or, berreunetaik, or, ordik beiti kasi... kasi denek. Or, Meskiriz te... Bixkarret ta or, berreunetaraño?... akaso izein tzüte bakarrek batek baña... ordi goiti ez. Ta Espinalen? Espilanen ere... berreunetaik beiti kasik.

- Au(ri)zperri ez zenuten erraten, euskaraz?

- Espinal... euskeraz? Aurizperri, bai, Aurizperri, te erdaraz Espinal.

- Eta ardi-saldoen aitzinetik ez zen joaten ahuntzen bat edo, taldea gidatzeko?

- Baña, or, or, or beti, or kasik beti ardiek zeuden mendien, mendien.

- Hori gehiago artzaiek eta kañadan barrena eta... hor bai, ezta?

- Bai, bai, or bai, bai; kañada pasten tzirelaik? bai, pasten tzire... 'iraskos' deitzeunte... aker, aker... osatuetaik, fale aundi batzuekin, pues igual lau-bortz altzinian, baña... or? emen, errietan ez, auntzek aparte.

- Kañadara nondik pasatzen ziren?

- Pues or, guk, Zabaleko Bordatik, erran dugunetik? an, urbiletik pasten tzire mendi oetaik... La Venta del Puerto, eztakit aitu zun...

- Ez, ez dut aditu.

- Andik, Zubrire atratzen tzire, Zubiri, badakizu... Zubrire; gerozt, ordik eztakit nondik juaten, baña...

- Eta nondik heltzen ziren?

- Or, Bixkarre, Bixkarre...

- Gerendiain?

- Gerenddiendik, Lintzoaindik, ta gero Lintzoaindik? pasten tzute kordillera at, ori... el Camino de Santiago o deitzenä; ordik, bixkarr oez? atratzera, Zubrire, alkorze oetaik. Gero? ez, ordi goiti eztait nola...

- 'Alcorce' hori ez da euskara, e?

- Ori... uskeraz nola deitzen da? alkorze ezta uskeraz, ez.

- Bidexka edo... guk Gipuzkoan erraten dugu bidezidor-edo... erran nahi duzu 'el atajo', ezta?

- Atajo, bai; uskeraz?... eztakit, nola da?

- Bidellabur edo? bueno, igual da... grazia egin dit.

- Eztait nola... uskeraz? enaiz oroitzen nola i... bide, llagu-, llagurtzera bidea o olako zerbait, erra-, te aitzen gindue, bai.

- Ongi, ongi; erraz, aise egiten duzu, e?

- Bah! auniz torpe paatu näiz, joan den ogei urte öntan; lenao bai, lenao.

2. Abereen eritasunez

- **Erref:** ERB-010/002
- **Iraupena:** 0:06:49. **Hasi:** 00:06:11. **Bukatu:** 00:13:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Abereen eritasunen inguruko azalpenak.</p>

Transkripzioa

- Ze eritasun izaten du behorrak?

- Bah! pues, eztakit, eritäsun... eritäsun franko izein da, gaitze... Beëe, bei ta oiek? e... miondoko ta... gero? karbunko -ps, ori, karbunko? urdera? euskeraz eztagit nola deitzen den orai-; karbunko orrekin segidoan iltzen dire ta, beltz-beltza paatzen dire, t'eztute... animele, artekari iaten. Bi-

benenatuik bezala gelditzen da.

- Eta miondokoa, zer da?

- Miondokoa? miondokoa're... odola enbenetz...-zatzen tzaëote, ta...

- Non, mingainean? mihian?

- De-, denean! nik, gorpuz guz-, guzien! ezpazara yo atienpo a... ta aunditzen dire? ta, gero, lertzen dire.

- Miondokoa da hori, e?

- Miondokoa, bai; miondokoa deitzen da, ori asten delaik? pues, atera mie? ta, zain bet, zain... batzuk batuztela, zaiñ ero oetako batian? tziztetiar diozu, puntz batekin, o... kurixekin odo asi? te, odola atra, aber, odola atra duzun guzien? txorta-gotaz? odola atra? ta, joaten da... za(u)rie, aunditui taolai te, tzizte bat in diozule bezala? bar da ei(n) bāia... aize, ori, aizia kenduz-kenduz? te, ya...

- Desinflatuz bezala...

- Desinflatu, bāi.

- Eta horrela sendatzen dira?

- Ta... bide-iru eunen buruko? sendatui tao, baña ezpadizu atz-, atienpo artzen? igual ordu etez antxe garbitzen tzaizu.

- Eta zer erran duzu, ez baitut ongi konprenitu; zer ezartzen zaie kurixeikin, edo...?

- Kurixe... muturrekin? tziztetu, tziztetu zaña, ta atra daen odol gaixto oi; dui kebe ordik atratzen da... odol gaixtoa? ta... ordik joaten da... gorpuz guzitik eta...

- Zabalduz eta dena enbenenatuz eta horrela, baina hori zulatuz gero...

- Ori? bai, gero, salbatzen da, bai; nik salbatu tut zenbait ola. Eun betez joan nitze ni mendire? Usëtxin etzute zautzen, ni juan artio, maiondokoa; il tzirela lenago azienda zenbait? beña etzakitela zerekin, ta juan nitze mendire ni? te, menditik eldu nitze? zurru koxkor batekin? andaitze deitzen duu, andaitze... koldiaindeko, makine, orrendako, andeitz beteki(n) te, beitik? beiti... zoko atian? Usitxiko at, izei, idi pare batekin? lanian.

- Zaude, zaude; erran duzu zuku batekin? edo... (gaizki ulertua guk)

- Ni eldu nitze andaitz bet, andaitze deitzen, ti-, timón; zoko atian... en un hoyo, en un hoyo, zokoa, deitzen dugu zokoa, en un hoyo; en un hoyo estaba...

- Segi segi, segi, bai...

- Zoko artan ai ze, lanian, idieki(n), ta andik bertzeko, gelditu ze... lanetik? eta, joan tze laixterka errire, ta, nik: "Orrek badu zer bait idiereki(n)". Bota nue andaitz ure? ta, laixterka yautsi nitze errire...

- Zer bota zenuen?

- Andaitze deitzen dou, zur bet ene... oi idiekin, timón, un timón, un timón.

- Andaitze, bai.

- Andaitze, bai, un timón pa...

- Baina zer bota zenuen? hori?

- El timón tiré, al suelo, pa ir corriendo al pueblo.

- Ah, lurrera bota zenuen, herrira joateko, lasterka joateko.

- Bai, errira fateko, bai, tä, llegatu ni-, juan nitze errire? ta, erran niote:

"Zer? ze pasten tzaëo orri?", te: "Idi bet, aunditu zeëola eztakit zer", ta.

Erran niote: "Kartzie, kartzie kurixa pare bat". Artu kurixa pare bat? eta:

"Kartzie, segidoan, porron bat o... o un rallo de agua, nere gibeletik, nik,

laisterka joateko pintz-, tziztetzeko". Ta ni juan nitzelaik arara? lau o borz

gizon antxe zeude idiekin, sain, olloain... eztakit zer, sain deitzeunte; ori,

sartu nue, eta idiä? pues, ez, ezin... ezin txutik egon tzego, ya aundituik

deltodo, ta erran tziek: "Sar, atra zazie ori!" erran niote. Segidoan artu nio

nik mie, ta segidoan tziztetu nio? ta segidoan elleatu zire ureiki? te, žiiiii,

olaxe zeo idie ta, nik tziztetuz bezala, odola atra bezala, uhuuuuu, olaxe

joan tze, segidoan idie ta, bai-bai. "Biarri(k) torri zera", erraten tzieten,

“Biarri(k) torri zera”, ta, bi do iru egunez? idie sendatu ze, ta ezpanaiz ni... tardatzen banu, nik, amar minuto? antxe gelditzen da idiik gabe.

- Eta hura ere miondokoa zen?

- Miondokoa, bai, miondokoa ze; ta erran tzirete nei: “Guk ez...-tugu beñ ere zautu miondokoa”. Bueno, il tzaizkigu guri aziendak? baña...

- Jakin gabe ta...

- Yakin gabe zere-, zerekin. Ta... miondokoa da rapidoa; ori... zautu, eta... igual, ordu et, ordu... t’erdi inguruko? adios, animelea garbituik. Bertze egun betez joan tzire?... irin bile, orduen kupoa iten tze, gerra ondoan, berrogeite... cuarenta y... dos, cuarenta y tres, cuarenta y cuatro, or izein tze, kupoaikin, onenbertze gari ematen tzindue zuk errotara? t’ara ematen tzüte arinä, te irine, ta lau, lau etxe zire Usëtxin? lau, lau... pareja juan tzire irin bile? ta... nerea, nere etxetik anaia juan tze, ta bidean, Usitxira ellegatu meño len? gure idi bet? bet, sei-, artu zaun-, aunditui izi-... ori, zerrie bezala, ta nere anaëa juan tze laixterka errire? ta, ni iautsi nitze oañik, beh! oroitzen naiz eskalapriñekin te nindeo, yakinen zer de(n) eskalapriñak...

- Bai, bai, bai...

- An estrabillean? ta, bai: “Jose, zato, zato! idie aunditu de, olako idia aunditu de? ta, miondokoa o ola izein du”. Te segidoan juan nitze laixterka? ta, tziztetu? te... beala pastu zaikio ere, biña bi-, odola at(e)ra biar, odola e atra bear da, bertzelaz, odola beltz-beltza paratzen tze.

- Tokatu zaizu horrelakorik, e?

- Je! beti azien-, aziendeki tä, lanean ta ibili neiz? te... pixket, pixket entenditzen gindue aziendetan ta ola.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-01-13

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com